



*Hutsartea*  
Estricalla  
Stop Control Antirecords, 2015

## Ibilbide irmo eta emankor baten lagina, gau bakarrean

EUSKAL HERRIAN sortutako Estricalla eskola zaharrekoa da zentzu askotan, nahiz eta taldea gazte samarra den: beraien lehen diskoa 2010ekoa da. Ez ditugu beraien biografia eta ibilbidea orain hemen zabal erreparatuko ARGIAko hemerrotekan aurretikako lanen iruzkinak aurkituko dituzuelako.

Eskola zaharrekoa dela esatean lehenik eta behin burura etortzen zaigu 80ko hamarkadan eztanda egin zuen punk-hardcorea, doinueta, jarreran eta egiteko moduan. Eta horiek guztiak ditu Estricallak. Bere kabuz, Stop Control Antirecords zigilu propioarekin eta lan andana eginez barrenak hustu, errebeldia egiazkoa zabaldu eta mimoz erditutako lanak kaleratzen dihardu. Hala, El Corazón del Sapo-ren garai urrunetatik orain arte egindako ibilbideak bere fruituak jasotzen ditu egunegun hurrengo pausok elikatuz. Eta badira, gainera, ibilbide horretan are eta esangura handiagoa duten urratsak, bidezidorrean pilatutako lagunek handiagoak egiten dituztenak. Horra hor, esaterako, Dead Kennedys taldeko sortzailea izateaz gain, oraindik ere asaldatzaile hutsa den Jello Biafrarekin batera lan egin izana.

Modu berean, honako lan hau, irudi indartsuz osatutako liburuxka mardula, singlea eta bibliografia oparoa eskaintzen duen *Hutsartea*, eguneroko ahalegin sutsu eta egiazkoarekin pilatutako laguneren beste topaketa berezia da. Aspaldidanik miretsitako SNFU taldearekin Zarauzko Putzuzulo Gaztetxean –etxean– agertokia partekatzeke aukera suertatu zenean, sute txiki horren beste gar bat piztu zen. Halako gau majiko bat! Gainera, talde kanadarreko Mr. Chi Pigekek idatzitako hitz bat Estricallarekin abestu eta grabatu zuten, lan honetan entzungai duzuen.

Aspaldiko lagun berezien topaketarekin bat, Ikor Kotx argazkilari zakur-zaharra Zarauzko gau horren lekuko izan zen, eta bere presentziak –eta lanak– egiten gaitu han batutako amorruz, indarrez, elkartasunez, lagunenez eta sentimenduz blaitu.



Bost kantuk osatzen dute Estricallaren *Hutsartea* disko berezia.

Argazki-sentsazioz jositako liburuxka mardula dakar aipagarri dugun disko txiki-handiak. Bere begiradaren filtropean protagonista bihurtzen gaitu Estricalla, SNFU, Arrautz Ustelak eta han bildutako guztiak.

Eta diskoaren lorratzen artean lau deiadar, lau ostikada, lau erditze: *Ice speed* biharko esperantzari uko egin eta RKLren tankerako zapatilla-hardcore-gitarroarekin; ilunagoa eta oso instrumentala den laino arteko *Skeleton*; SNFUko Mr. Chi Pigekek abestutako *Kurling* kalekume destroyerra; eta Ejea de Los Caballero-seko heavy iragana lotsagabeki punk-hardcore gitarroenearekin ezkontzen duen *Bosleigh*, hain zuzen ere.

Erraietako punk-hardcore asaldatzailearen zale-tuontzat arnasa da Estricalla. Eta koordinada horietatik kanpo daudenentzat berriz, lan egiteko eta borroka egiteko eredu bat, diziplina betea eta egiazkoa; tontakeriarik gabe. ■

**Iker Barandiaran**